

Pispillu abesbatza

Luis Mari Izagirrek sortu zuen emakumeen ahots zurien abesbatza izan zen. 1990ean eskaini zuten bere lehenengo kontzertua. 1998an gizon eta emakumeen abesbatza bilakatu zen.



-Zein urtetan sortu zen taldea?

1989an sortu zen eta Luis Mari 1994 arte zuzendu zuen. 1995ean Elisabeth Sarriugarte hasi zen zuzentzen. Abesbatzean dabilen jendeak ez dauka musikan formaziorik, baina Musika Eskolaren baitan dago.

-Zenbat kide zarete?

Zuzendariarekin 34 kide gara.

-Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Musika Eskolan biltzen gara astean

bi egunetan ordu eta erdiz egunean.

-Zein helburu dituzue?

Batez ere abestea eta abestuz disfrutatzea. Beste alde batetik, irteerak egitea, guk ikasitakoa besteei erakusteko eta besteekin konpartitzeko.

-Urtean zehar zeintzuk ekitaldi egingen dituzue?

Kontzertu ezberdinetan hartzen dugu parte, Ermuan eta Ermutik kanpo ere: otsailean Bilboko

Begoñan, udaberriko kontzertuetan, Bizkaiko Koraleen egunean (aurten ekainaren 10ean), Alboka Musika Eskolaren egunean, San Juan egunean, urriko musika hamabostaldian eta abenduaren 25ean. Horrez gain, herri ezberdinetako koruekin trukeak egiten ditugu, Artzeniega, Allariz esaterako. Azken irteera Alboka abesbatzarekin batera maitzeko zubian egin genuen, Allarizen egon ginen.

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

San Antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGAROTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna